

**Audioaren erreferentzia:** Bagoaz A2E19 Diskotekan, ligatzen.

**Maila:** A2

**Helburua:** Intereseko informazioa ematea eta jasotzea.

**Funtzioa:** Datu pertsonalei buruzko informazioa eskatzea eta ematea.

**Azken ekintza:** Bikoteak osatzea.

**Adierazpide linguistikoak:**

- "al" partikula.
- "Behar izan".

## 1- IKUSI AURRETIK



### 1.1 Gogoratzen zara?



Nola ligatzen zenuten? Jarri talde txikitan eta komentatu puntu hauek:

- Nola ligatzen zenuten?
- Nora joaten zineten?
- "Teknika" bereziren bat erabiltzen al zenuten?
- Esaten duten bezain zaila da euskaldun batekin ligatzea?
- ...

*Gu gauean, auzoko taberna guztiak itxi ondoren, alde zaharrera joaten ginen. Taberna bateko barran jarri eta han egoten ginen, itxi arte. Egia esan ez genuen arrakasta handirik izaten.*

## 2 - IKUSI BITARTEAN

### 2.1 Hemengoa zara?



Entzun audioa eta lagunekin adostu erantzunak.

*Zergatik hasi da berriro jende gaztea etortzen diskotekara? Nagusiak aldatu direlako.  
Amaiak esaten du ez dela herri horretakoa. Zertara etorri da? Master bat egitera.  
Nor dio Amaiak dela begira dagoen mutil hori (Josu)? Bere pisukidea.*

### 2.2 Askotan etortzen zara hona?



Entzun audioa berriro.

*Zergatik ordaindu behar du Juneke? Potea daukalako.  
Zertan eta non ibili da urte askoan Amaiari hurbildu zaion mutila? Arrantzan, Irlandan.  
Zertara hurbildu zaie Josu? Ea ondo dauden ikustera.*

### 3 - IKUSI ONDOREN

#### 3.1 Ezetz asmatu!



Hemen dituzte testuan agertzen diren galdera batzuk. Jarri binaka eta komentatu dezatela haien artean ea zerbait berezia ikusten duten. Galdera batzuek “al” partikula daukate eta besteek ez. Hortik abiatuta azalpena eman.

- Bueno, zer edan nahi duzue?
- Non ibili zara, ba?
- Guri begira dagoen mutil hori zure senargaia al da?
- Josu, zer nahi duzu?
- Ez al duzu ikusten?

#### 3.2 Ba al zenekien?



Eman “al” partikularen azalpena.

“al” partikula bakarrik jar daiteke “bai” edo “ez” erantzuteko diren galderetan.



Beti aditz laguntzailearen aurrean doa, eta ez da inoiz beharrezkoa, baina leku batzuetan asko erabiltzen da.

Adibidez:

*Non bizi zara?* (ezin da “al” jarri)

*Bihar etorriko (al) zara?* (zure aukera da jartzea edo ez)

#### 3.3 Esango al didazu?



Hemen dituzu galdera batzuk. Markatu zeinetan jar daitekeen “al” eta non.

	Zerbait hartu <b>al</b> nahi duzu?
	Nola duzu izena?
	Askotan etortzen <b>al</b> zara hona?
	Nongoa zara?
	Horiek zure lagunak <b>al</b> dira?
	Zer musika-mota gustatzen zaizu?
	Kanpora aterako <b>al</b> gara?

3.4 Beste erremediorik ez!



Josu saiatzen da ligatzen, baina ez du arrakasta handirik eta interneten probatu behar du. Zuek bezala. Bete zure fitxa eta probatu. Gero jakingo duzu zer tokatu zaizun. Zorte on! Bakoitzak bere fitxa bete ondoren, fitxa guztiak bildu, eta taldean bikoteak erabaki.

	<p><b>Ezizena:</b></p> <p><b>Adina:</b></p> <p><b>Herria:</b></p> <p><b>Ikasketak:</b></p> <p><b>Lanbidea:</b></p> <p><b>Itxura:</b></p> <p><b>Zaletasunak:</b></p> <p><b>Nolako pertsona bilatzen duzu?</b></p> <p><b>Zer asmo daukazu?</b></p> <p><b>Zerk erakartzen zaitu?</b></p>
--	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**TRANSKRIPZIOA**

**JUNE.**— Bueno, zer edan nahi duzue? Nik ordainduko dut.  
**ALEX.**— Lotsagabea! Poteko dirua zuk daukazu! Nik garagardoa.  
**AMAIA.**— Nik ere bai.  
**JOSU.**— Nik kalimotxo.  
**JUNE.**— Ederki. Iepa! Jarriko dizkidazu hiru garagardo eta kalimotxo bat, mesedez?

**ZERBITZARIA.**— Oraintxe.

### ETENA

**JOSU.**— Sekulako giroa, ezta?

**AMAIA.**— Bai, nik uste nuen ez zela inor etortzen diskoteka honetara, baina lepo dago.

**JUNE.**— Nagusiak aldatu egin dira, eta berriek beste giro bat eman diote. Eta eskerrak!

**ALEX.**— Hala da. Adineko jendea etortzen hasi zen, eta gazte guztiak alde egiten hasi ziren. Baina berriro gazte-giroa dago.

**JOSU.**— Eta hobe!

### ETENA

**EZEZAGUNA.**— Iepa!

**AMAIA.**— Kaixo!

**EZEZAGUNA.**— Hemengoa zara?

**AMAIA.**— Bueno, hemen bizi naiz aspaldian.

**EZEZAGUNA.**— Ni Xabi, hemengoa, baina urte asko egin ditut kanpoan.

**AMAIA.**— Non ibili zara, ba?

**EZEZAGUNA.**— Arrantzan urte askoan, eta gero Irlandara joan nintzen bizitzera. Eta zu?

**AMAIA.**— Ez naiz hemengoa, baina master bat egitera etorri naiz hona.

**EZEZAGUNA.**— Aizu, guri begira dagoen mutil hori zure senargaia al da?

**AMAIA.**— Hori? Kar-kar-kar! Ez, ez! Pisukideak gara.

**EZEZAGUNA.**— Ba uste dut ez zaiola asko gustatzen zu eta ni berriketan egotea.

**AMAIA.**— Ohitu beharko du ba!

**EZEZAGUNA.**— Ez dakit ba. Badator.

**AMAIA.**— Ez da posible! Josu, zer nahi duzu?

**JOSU.**— Ondo zauden galdetzera etorri naiz.

**AMAIA.**— Primeran nago. Ez al duzu ikusten?

**JOSU.**— A... Beste garagardo bat nahi duzu?

**AMAIA.**— Bai, mesedez.

**AMAIA eta EZEZAGUNA.**— Kar-kar-kar!

**AMAIA.**— Goazen pistara; bestela, ez dugu bakerik izango!